
ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUAREN KONTRATAZIORAKO BARNE ARAUAK

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUAREN KONTRATAZIORAKO ORGANOAK ONARTUAK,
2011KO MAIATZAREN 10EAN

AURKIBIDEA

1. AURREKARIAK	¡Error! Marcador no definido.
3. EZARPEN EREMUA	¡Error! Marcador no definido.
4. DEFINIZIOAK ETA INTERPRETATIOA	¡Error! Marcador no definido.
5. KONTRATAZIO OINARRIAK	¡Error! Marcador no definido.
6. KONTRATAZIORAKO ORGANOA	¡Error! Marcador no definido.
7. KONTRATUAK PRESTATZEA	¡Error! Marcador no definido.
8. KONTRATAZIO PROZEDURA	¡Error! Marcador no definido.
8.1. Esleipen zuzenerako prozedura	¡Error! Marcador no definido.
8.2. Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	¡Error! Marcador no definido.
8.3. Publizitatedun prozedura negoziatua	¡Error! Marcador no definido.
8.4. Prozedura irekia edo murriztua	¡Error! Marcador no definido.
9. ORDEZKO ARAUDIA	¡Error! Marcador no definido.
10. ESPARRU HITZARMENA	¡Error! Marcador no definido.
11. KONTRATUAK	¡Error! Marcador no definido.
12. AZKEN GOGORAPENAK	¡Error! Marcador no definido.

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUAREN KONTRATAZIORAKO BARNE ARAUAK

1. AURREKARIAK

- 1.1. Etxepare Euskal Institutua, izaera juridikoari dagokionez, apirilaren 20ko 3/2007 Legearen arabera sortu zen, eta zuzenbide pribatuko izaki publikoa da, zeina aurreikusirik dagoen unean indarrean den azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legegileko 7. artikuluan, bertan Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren Printzipio Ordenatzaileei buruzko Legearen Testu Bateratua onartzen da.
- 1.2. 3/2007 Etxepare Euskal Institutuaren Sorkuntza eta Arautze Legearen 2. artikuluan xedatutakoaren arabera, Etxepare Euskal Institutuak nortasun juridiko propioa du, bai eta ahalmena ere, bere xedeak betetzeko helburuak lortzeko jarduteko.
- 1.3. Sektore Publikoen Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen (oraindik aurrera SPKL) 3.1 d) eta 3.3 b) artikuluekin eta arestian adierazitakoarekin bat, Etxepare Euskal Institutuak, zuzenbide publikoko izaki pribatua izanda, sektore publikoaren zati eta herri-administrazioetatik at dagoen esleipen ahalmenduna da, zentzu hertsian. Kontrataziorako araubide juridikoa, hortaz, aipatutako Legearen 175. artikuluan aurreikusitakoaren mende dago.
- 1.4. SPKL legearen 175. artikuluko b) atalean ezarrita dagoen agindua betetz, Kontrataziorako Barne-Arauak (hemendik aurrera KBA) ematen dira. KBA arauen helburua da Etxepare Euskal Institutuak hirugarrenekin garatuko dituen kontratu guztietarako jarduera-metodologia ezartzea.

2. HELBURUA

KBA arauen helburua da adostutako araudiaren mende ez dauden kontratuak esleitzeko barne-prozedurak arautzea, modu horretan, publikitatearen, lehiaren, gardentasunaren, konfidentziasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarrien eraginkortasuna berma dadin, eta kontratua eskaintza ekonomiko onena egiten duenari esleitzen dakion.

KBA arauok organo honen kontratatzailearen profilean egongo dira eskuragarri, eta ohiko bideen bidez informazioa eman ahalko zaie interesdunei deitutako kontratazioetan parte hartzeko.

3. EZARPEN-EREMUA

KBA arauok nahitaez bete beharko dira Etxepare Euskal Institutuak hirugarrenekin egindako kontratu guztietan, adostutako araudiaren mende ez daudenetan, edozein izanda horien izaera. Salbuespena dira SPKL Legearen 4. artikuluan jasotako negozioak eta kontratuak. Hain zuzen ere, honako hauek:

- Etxepare Euskal Institutuak Administrazio Publikoekin, erakunde publikoekin eta gainerako entitate publikoekin sina ditzakeen hitzarmenak, betiere hitzarmenen helburua SPKLk araututako kontratuetan edo administrazio-arau berezietan jasota ez dagoenean.
- Arau berezien arabera hitzarmenak, Etxepare Euskal Institutuak sinatzen dituenak, zuzenbide pribatuko pertsona fisiko edo juridikoekin, betiere hitzarmenen helburua SPKLk araututako kontratuetan edo administrazio-arau berezietan jasota ez dagoenean.
- Arbitraiako eta bateragarritasuneko zerbitzuei dagozkien kontratuak.
- Ordenagailu-programek kudeatu beharrez horniketa- edo zerbitzu-kontratu gisa kalifikatutakoak ez badira, higiezin, balio negoziagarrien eta propietate gorpuzgabeen salerosketa-, dohaintza-, trukaketa-, alokatze-negozioen eta bestelako negozio juridikoen kontratuak.

Adostutako araudiari lotutako kontratuetan, SPKL Legearen 13. artikuluan eta hurrengoetan definitu gisa, lizitazio-prozedurak ez dira KBA arauon arabera egingo, ezpada SPKL Legearen 174. artikuluan bildutako xedapenen arabera.

KBA arauon arabera erregulatutako kontratuen araudi juridikoa zuzenbide pribatuaren da, eta KBA arautan bildutako normak aplikatu ahalko dira prestaketan eta esleipenean.

KBA arauok Etxepare Euskal Institutuak egindako kontratuen lizitazio-prozeduretan aplika daitezke.

4. DEFINIZIOAK ETA INTERPRETAZIOAK

KBA arautan aurreikusitako ondorioetarako, hona hemen definizioak:

- Adostutako araudiaren mende ez dauden kontratuak: SPKL Legearen Atariko Buruan, II Kapituluko 2. atalean hala definitutakoak. Zehazki, halakotzat joko

dira, besteak beste, honako hauek: legeak aurreikusitakoaren arabera kalkulatuta, 4.845.000 euro baino gutxiagoko balio zenbatetsia duten lanen kontratuak; legeak aurreikusitakoaren arabera kalkulatuta, 193.000 euro baino gutxiagoko balio zenbatetsia duten hornikuntza- eta zerbitzu-kontratuak, SPKL Legearen II eranskineko 1 eta 16 kategorietan jasotakoak; eta, zenbatekoa edozein izanda ere, SPKL Legearen II. eranskineko 17 eta 27 kategorietan jasotako zerbitzu-kontratuak eta 13.2 artikuluko kontratuak.¹

- Obra-kontratuak: SPKL Legearen 6. artikuluan eta harekin bat datozen xedapenetan hala definitutakoak. Oro har, halakotzat jotzen dira ondasun helburutzat higiezinak bat duten eraikuntza-lanei dagozkien kontratuak.
- Hornikuntza-kontratuak: SPKL Legearen 9. artikuluan hala jasotakoak. SPKL Legearen, oro har, honela daude definiturik: ondasun higiezinak eskuratzea, finantza-errentamendua edo erosketa aukeradun edo aukerarik gabeko errentamendua helburu duten kontratuak.

Hornikuntza-kontratuak dira, zehazki, Etxepare Euskal Institutuaren jarduera propioak garatzeko beharrezko materialak, ekipamenduak edo instalazioak helburutzat dituztenak.

- Zerbitzu-kontratuak: SPKL Legearen 10. artikuluan xedatutakoarekin bat, zerbitzu-kontratuak dira honako prestazio hauek ematea helburutzat dutenak: jarduera baten garapena gauzatzea edo obraz zein hornikuntzaz bestelako emaitzaren bat lortzea.

Kontratuon barnekoak dira ikerketa, garapena, bideragarritasun teknikoaren zein ekonomikoaren azterketa, merkatu-azterketa, laguntza teknikoa eta aholkularitza (ikuskatzeak barne), aurreproiektuak, argitalpenetarako oinarritzko dokumentuak, argitalpenen edizioa, komunikazio-kanpainak, zabalkundea eta publizitatea, formazio-ikastaroak gauzatzea helburu duten kontratuak, bai eta Etxepare Euskal Institutuaren edozein arloko lanak garatzeko beharrezko bestelako edozein jarduera gauzatzea helburu duten kontratuak ere.

5. KONTRATAZIO-OINARRIAK

Oro har, eta SPKL Legearen 175. artikuluan xedatutakoari jarraiki, kontratuak eskaintza ekonomikorik onenari esleituko zaizkio. Esleipena egiteko, errespetatu egin beharko dira publizitate-oinarriak, bai eta lehiarakoak, gardentasunerakoak, berdintasunerakoak eta diskriminazio ezari dagozkionak ere.

¹ Atalaseok aldatutzat joko dira Europar Batasunak gaiaren inguruan xedatutakoaren arabera, SPKL Legearen 14. xedapen gehigarrian jasotakoarekin bat. Horretan, eta xedapen horiek aplikatzeko, ez dira KBA arauok aldatu behar izango.

Publizitate-oinarria bete dela ulertuko da lizitazioari dagokiona argitaratzen denean Etxepare Euskal Institutuaren kontratatzailearen profilean (www.etxepare.net), salbuespen bakar batekin: 50.000 euro baino gehiagokoak ez diren balio zenbatetsikoak, SPKL Legearen 175.c artikulua araberako publizitaterik behar ez dutenak. Hala ere, egoki irizten zaionean, aipatutako web-orrian argitaratu ahal izango da balio hori baino gutxiagokoa den edozein kontratazioen berri.

Konfidentzialtasun-oinarriari men egingo zaio, eta Etxepare Euskal Institutuak erantzukizuna hartzen du enpresariak konfidentzial gisa definiturik emandako informazioa ez zabaltzeko, betiere horretarako arrazoi justifikatuak badaude; zehazki, sekretu teknikoak eta komertzialak eta eskaintzen alde konfidentzialak. Halaber, konfidentzialtasunaren oinarriaren arabera, kontratistek errespetatu egin beharko dute kontratua bete bitartean eskueran izandako informazio konfidentziala, zeina zehazturik egongo litzatekeen kontratuaren pleguetan, edo zeina informazioaren izaeragatik beragatik hala kudeatu behar den.

Berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa beteko dela egiaztatzeko, prozeduretan partzialtasunik eza eta berdintasuna betetzeko beharrezko neurriak hartuko dira. Neurri horien artekoak izango dira, gutxienez, honako hauek:

1. Kontratuen helburua diskriminaziorik ez egiteko moduan deskribatuko da beti, fabrikazio edo jatorri jakin bati erreferentziarik egin gabe, eta produktu zehatzen nahiz marka, patente, tipo, jatorri edo produkzio zehatzen aipamenak egin gabe. Salbuespena egingo da modu horretako erreferentziak egitea arrazoiz justifikatzen bada eta ondoan "edo antzekoa" aipamena egiten bada.
2. Ez da inongo baldintzarik ezarriko Europar Batasuneko beste estatu batzuetako balizko lizitatzailleak zuzenean edo zeharka diskriminatzeko modukorik.
3. Hautagaiei tituluak, ziurtagiriak edo bestelako justifikazio-dokumentuak eskaintzen bazaizkie, Europar Batasuneko herrialde kideetako dokumentuak onartu beharko dira, elkarren tituluak, ziurtagiriak eta bestelako diplomak onartzeko printzipioari jarraiki.
4. Interesa erakusteko zein eskaintzak aurkezteko epeak behar bezain egokiak izango dira Europar Batasuneko beste herrialdeetako enpresek ebaluazio egoki bati ekin diezaioten eta eskaintza bat aurkezteko aukera izan dezaten.
5. Hornitzaile edo banatzaile bat baino gehiago lehian diren esleipen-prozeduretako kontratuetan, Etxepare Euskal Institutuak bermatu egingo du denek ere, baldintza beretan, kontratuari buruzko informazio bera edukitzea.

6. KONTRATAZIO ORGANOA

Kontratazio-organoa Etxepare Euskal Institutuko zuzendari andrea da, eta berak du erakundearen ordezkaritza gorenaren kontratazioaren arloan. Dena dela, eskumenok besteren esku utzi ahal izango ditu, edo Etxepare Euskal Institutuko arloko zuzendaria behin-behineko ahalorde izendatu, kontratuekin lotutako ekinbide jakinetarako.

7. KONTRATUAK PRESTATZEA

Kontratazio-espeditentea arrazoiketa-memoriarekin hasiko da, non hurrengo hauek adieraziko diren:

- Kontratuaren bidez bete beharreko beharizanen izaera eta hedadura, bai eta kontratuaren helburuaren eta edukiaren egokitasuna ere.
- Kontratuaren baldintza nagusien deskripzioa.
- Kontratuaren helburuaren arrazoiketa eta deskribatutako beharizanak betetzeko baldintzak.

Munta txikiko kontratuen kasuetan, ez da arrazoiketa-memoriarik behar. Urgentzia-kasuetan hasiera batean arrazoiketa-memoria alde batera laga daiteke, baina gerora gehitu egin beharko da.

SPKL Legearen 121.2 artikuluekin bat, 50.000 eurotik gorako kontratuak direnean, baldintza-plegua egingo da. Plegu horretan, gutxienez, honako informazio hau jasoko da:

- Kontratuaren helburuaren deskribapena, eta haren ezaugarri nagusiak.
- Kontratistaren gaitasun-baldintzak, kontratatzeke debekurik eza, finantza- eta ekonomia-kaudimena, eta, hala behar denean, teknikoa eta profesionala.
- Aurrekontua.
- Kontratuaren iraupena eta luzapenak.
- Kontratua esleitzeko modua.
- Eskaintzak jasotzeko epeak. Beti izango da lehiaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak bermatzeko behar bestekoa.
- Publizitatea, kontratugilearen profileria iristeko bidea, eta, hala behar denean, publizitate-gastuak.
- Lizitatzailleek aurkeztu beharreko dokumentazioa, aurkezteko modua eta eskaintzak jasotzeko modua.
- Aldaerak onartzeko araudia.
- Lizitatzailleak hautatzeko irizpide objektiboak. Hala badagokie, eskaintzak aurkezteko gonbita jasoko dute, eta, kasuan kasu, negoziazio-ildoan alderdiak.

- Kontratuaren esleipenerako, kasuan kasu, kontuan hartuko diren irizpide objektiboak.
- Prestazioa egiteko beharrezko preskripzio tekniko zehatzak. Kasuan kasu, prestazioaren ezaugarriak definituko dituzte.
- Lanaren, ondasunaren edo zerbitzuaren entregarako edo burutzerako lekua eta epea.
- Eskaintzarik merkeena aurkeztutako lizitatzailleek edo lizitatzailleak bermatu beharrekoak.
- Ordainketa-modua eta faktura egiteko derrigortasuna.
- Lan-kontratuen subrogazio-baldintzak, adjudikatzaileari betebeharrak hori beteazten bazaio.
- Beste baldintza batzuk, esaterako: ingurumen- eta gizarte-arloko gaiak; lanaren, zerbitzuaren edo hornigaiaren arabera zertifikazioak edota prestakuntza-agiriak.
- Lana, zerbitzua edo horniketa egokia izan dadin edo salerosiko den ondasunaren ezaugarrien arabera kontuan har daitekeen beste edozein baldintza.
- Kontratuaren zuzenbide-araubidea eta dagokion jurisdikzioa.

Aurrekoak ez bestelako baldintzak eta betekizunak ere jaso ahal izango dira, betiere KBA arauotako 2. atalean zerrendatutako printzipioak betetzea bermatuta bada.

Horrez gainera, obra-kontratua esleitzen den kasuetan, kopurua edozein izanda, nahitaez egin behar izango dira aurretiaz dagozkion elaborazioa, ikuskapena, onarpena eta birplanteamendua. Era horretan, kontratuaren helburu den proiektuaren zehaztasuna definituko da, baldin eta ez bada proiektu eta obra egiteko esleipena egiten, non egintza bera baldintzaturik egingo den, eta kontratazio-organoaren ikuskapena, onarpena eta birplanteamendua izango duen.

8. KONTRATAZIO PROZEDURA

Kontratuaren zenbatekoaren arabera, eta SPKL Legean edo/eta KBA arauotan jasotako salbuespenetan eragin gabe, honako esleipen-prozedura hauek aplikatuko dira.

Horretarako, kontratuen balio zenbatetsia kalkulatzeko SPKL Legean aurreikusitako arauak baliatuko dira, eta ez du barne izango Balio Erantsiaren Zerga.

8.1. Esleipen zuzeneko prozedura

Zuzenean esleitu ahal izango dira 50.000 eurotik beherako kontratuak obren kasuan, eta 18.000 eurotik beherakoak zerbitzuak, horniketak edo bestelakoak badira. Era berean, prozedura negoziatu irekita zein mugatura jo daiteke. Kasu horretan, hurrengo ataletan xedatutakoa aplikatuko da.

Esleipen zuzeneko prozeduran, ase beharreko beharizanaren arabera, kontratista egokiena hautatuko da dagokion arloan edo sektorean zerbitzuak eman edo ondasunak hornitzen dituztenen eta lana egiteko gaitasuna eta prestakuntza profesional nahikoa dutenen artean.

Esleipen zuzeneko prozeduraren tramitazioan aurrekontu edo eskaintza bakarra baino ez da behar, idatzizkoa eta behar besteko xehetasunak biltzen dituena kontratuaren helburu den prestazioaren arabera. Kontratua burutakoan, dagokion faktura gehituko da. Esleipen zuzeneko obren kontratuaren kasuan, aurrekoaz gainera, obren aurrekontua eta, arauak hala agintzen dutenean, obren proiektua ere gehituko dira.

Halatan ere, munta txikiko kontratuek pertsona fisikoekin (*freelance*) zerikusia duten merkatu-harrenak jasotzen dituztenean, alderdien artean adostutakoen zirkunstantziak idatziz jasoko dira, eta alderdiek sinatuko dituzte. Pertsona fisikoekin zerikusia duten merkatu-harreman horiek honako hauek dira: irudi-eskubideak, propietate intelektualaren eskubideak edo *copyrighta* ematea, laguntza- edo publizitate-trukatzeak, espazioak alokatzea, informazio konfidentziala partekatzea edota izaera pertsonaleko datuak kudeatzea.

8.2. Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua

Publizitaterik gabeko prozedura negoziatuari ekin ahalko zaio obrak 50.000 eurokoak edo gutxiagokoak eta 20.0000 eurokoak edo gutxiagokoak diren kontratuetan eta zerbitzuak eta hornikuntzak 18.000 eurokoak edo gehiagokoak eta 60.000 eurokoak edo gutxiagokoak diren kontratuetan. Era berean, prozedura publizitadedun negoziatu irekita zein murriztura jo daiteke. Kasu horretan, hurrengo ataletan xedatutakoa aplikatuko da.

Kontratuaren helburua den lana egiteko gaitasuna duten hiru enpresari eskatzen zaie gutxienez eskaintza bat egin dezatela. Eskaintza egiteko baldintzen eta betebeharren plegua edo dokumentua bidaliko zaie kontratuaren balio zenbatetsia 50.000 eurotik beherakoa denean. Kasu horretan, dokumentuak honako hauek jasoko ditu, gutxienez:

- Kontratuaren helburuaren deskribapena eta haren ezaugarri nagusiak.
- Lizitazioaren aurrekontua.
- Kontratuaren iraupena eta luzapenak.
- Lizitatzailleek aurkeztu beharreko dokumentazioa eta aurkezteko modua.

- Lana entregatzeko edo burutzeko lekua eta epea.
- Enpresekin negoziatu beharrekoen alderdi ekonomikoak eta teknikoak.

Aurrekoak ez bestelako baldintzak eta betekizunak ere jaso ahal izango dira, betiere KBA arauotako 2. atalean zerrendatutako printzipioak betetzea bermatuta badago.

Etxepare Euskal Institutuaren langile teknikoen aldetik, aurkeztutako proposamenak (baldin eta ez badira jo negoziatorako alderdi teknikoen eta ekonomikoei jarraiki neurritz kanpokotzat edo normaltasunetik kanpokotzat) beheranzko ordenan jasotzen dituen proposamena helarazikoa da, bertan eskaintzarik merkeena identifikatuz. Guztia behar bezala frogatuta adieraziko da.

Egindako gonbitak jasoko dira, bai eta jasotako eskaintzen eta onartzeko edo ez onartzeko arrazoien eta egindako negoziazioen berri ere emango da.

Esleipena parte-hartzaile guztiei jakinaraziko zaie, eta, aldi berean, kontratugilearen profilean argitaratuko da. Kontratuaren formalizazioa kontratugilearen profilean argitaratuko da, bai eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere, lan-kontratuak 100.000 euro edo gehiagokoak direnean.

8.3. Publizitadedun prozedura negoziatua

200.000 euro baino gehiagoko eta 1.000.000 euro baino gutxiagokoak diren obra-kontratuak eta 60.000 euro baino gehiagoko eta 100.000 euro baino gutxiagoko zerbitzuen, hornikuntzaren eta bestelakoen kontratuak.

Kasu horietan, lizitazioaren iragarkia Etxepare Euskal Institutuaren kontratugilearen profilean argitaratuko da. Bertara www.etxepare.net helbidetik iritsi ahal izango da. Bertan izango da, halaber, baldintzen plegua, kontratazio-organoak hala xedatzen duenean. Horrek ez du inongo eraginik izango egokitzat jotako bestelako publizitate-mekanismo gehigarriei.

Etxepare Euskal Institutuak, kontratuaren espezialitatea edo egokitasuna dela eta, egokitzat jotako edozein enpresariri egin diezairoke gonbita. Era berean, interesa agertzen duen edozein enpresarik aurkeztu ahal izango du bere eskaintza lehiara.

Kasu orotan, baldintzen pleguetan egongo dira ezarrita enpresekiko negoziazioaren helburu izango diren alderdi ekonomikoak eta teknikoak, eta eskaintzarik merkeena egiten duen huraxe hautatuko da.

Etxepare Euskal Institutuaren langile teknikoen aldetik, aurkeztutako proposamenak (baldin eta ez badira jo negoziatorako alderdi teknikoen eta ekonomikoei jarraiki neurritz kanpokotzat edo normaltasunetik kanpokotzat) beheranzko ordenan jasotzen

dituen proposamena helarazikoa da, bertan eskaintzarik merkeena identifikatuz. Guztia behar bezala frogatuta adieraziko da.

Egindako gonbitak jasoko dira, eta jasotako eskaintzen eta onartzeko edo ez onartzeko arrazoien eta egindako negoziazioen berri ere emango da.

Esleipena parte-hartzaile guztiei jakinaraziko zaie, eta, aldi berean, kontratugilearen profilean argitaratuko da. Kontratuaren formalizazioa kontratugilearen profilean argitaratuko da, bai eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere, obra-kontratuak 100.000 euro edo gehiagokoak direnean.

Prozedura negoziatua ere hautatu ahal izango da, edozein izanda balio zenbatetsia, 154 eta 155 artikuluetan aurreikusitako a), b) eta c) ataletako kontratuetan, 157 artikuluko a), b), c), d), e) eta f) ataletakoetan eta 158 artikuluko a), b), c) eta d) ataletakoetan. Kasu horietan, 154 artikuluko a) eta b) atalei, 155 artikuluko a) eta 158 artikuluko a) ataletakoei dagokienean baino ez da argitaratuko lizitazioaren iragarkia kontratugilearen profilean.

Aurreko denaren despit, prozedura irekita zein murriztura jo daiteke. Kasu horretan, hurrengo ataletan xedatutakoa aplikatuko da.

8.4. Prozedura irekia edo murriztua

Prozedura ireki edo murriztu bidez tramitatzen dira obren kontratuak 1.000.000 eurokoak edo gehiagokoak direnean, 48.45.000 euro baino gutxiagokoak direnean eta zerbitzu-, hornikuntza- eta bestelako kontratuak, balio zenbatetsia 100.000 eurokoa edo gehiagokoa eta 193.000 baino gutxiagokoa denean.

Kasu honetan, lizitazio-iragarkia kontratugilearen profilean argitaratuko da, bai eta egokitze jotako eta pleguan adierazitako egunkarian ere, betiere kontratuaren izaeraren eta baldintzen arabera prozedurari eman nahi zaion lurralde-zabalkundea ikusirik.

Lizitazio ezberdin guztien iragarkiek kontratuaren xehetasun orokorren deskripzioa jasoko dute, bai eta esleipen-prozedura eta eskaintzak aurkezteko epea ere, kasu bakoitzean dagokion plegura bidalaraziz irakurlea, informazio osagarria gura izanez gero. Era berean, Etxepare Euskal Institutuarekin harremanetan jartzeko gonbita ere jaso ahal izango da iragarkian.

Baldintzen pleguan zehaztuko da proposamenak aurkezteko epea, baina ez da inoiz izango 26 egunetik beherakoa obren kasuan eta 15 egunetik beherakoa hornikuntzen, zerbitzuen edo bestelakoen kasuan. Salbuespenak egin ahal izango dira kontratazio-organoak epea murrizteko arrazoizko zirkunstantzia bereziak daudela iritzi gero.

Proposamenak isilpekoak izango dira, eta itxitako gutun-azalen barruan aurkeztuko dira, baldintzen pleguan adierazi gisa.

Kontratuak esleitzeko oinarri gisa baliaitutako irizpideak, bai eta haien ponderazioa ere, kontratazio-organoak zehaztuko ditu, eta iragarkian eta baldintzen pleguan jakinaraziko dira.

Baldintzen pleguan batzorde baten osaeraren eta gaitasunen berri emango da. Batzorde horren egitekoa izango da aurkeztutako proposamenak ebaluatzeko txosten objektiboa egitea eta aurkeztutako proposamenak beheranzko ordenan (baldin eta ez badira jo negoziatorako alderdi teknikoen eta ekonomikoei jarraiki neurritz kanpokotzat edo normaltasunetik kanpokotzat) jasota dituen proposamenen bat helaraztea. Era berean, proposamen merkeena zein den jakinaraziko du batzordeak. Batzorderik egon ezean, Etxepare Euskal Institutuko teknikariek helaraziko dute aipatutako proposamena.

Kontratazio-organoak esleituko dio kontratua, arrazoituriko ebazpenaren bidez, baldintzen pleguan aurreikusitako proposamenen baloraziorako irizpide objektiboen arabera eskaintzarik merkeenari, ebaluazio-batzordeak, edo haren faltan langile teknikoek, egindako proposamena ikusita. Kontratazio-organoak eman zaion proposamenarekin bat egiten ez duen kontratu-esleipena eginez gero, erabakia arrazoitu egin beharko du.

Esleipena kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Kasu honetan, kontratuaren formalizazioaren berri kontratugilearen profilean argitaratuko da gutxienez, bai eta egoki irizitako eta pleguan adierazitako egunkarian ere, betiere kontratuaren izaeraren eta baldintzen arabera prozedurari eman nahi zaion lurralde-zabalkundea ikusirik.

9. ORDEZKO ARAUDIA

Pleguan edo KBA arauotan besterik aurreikusi ezean, honako hau aplikatuko da:

- Prozedura irekirako eta prozedura murrizturako: 135. artikulua (1, 2 eta 3).
- Prozedura irekirako: 141, 142, 144 (ezingo da inongo kasutan adituen batzordeak edo batzorde tekniko bereziaren interbentzioari dagokionez aurreikusitakoa) eta 145 artikuluetan. Prozedura murrizturako, 146, 147, 149, 150, 151, 152 artikuluetan eta horiek aplika dakizkien gainerakoetan. Kasu denetan ere, Administrazio Publikoa ez izategatik aplikatu beharreko egokitzeak egin beharko dira.

10. ESPARRU-HITZARMENA

Etxepare Euskal Institutuak kontratuen esleipena arrazionalizatu eta ordenatu ahalko du, esparru-hitzarmenak eginez ohiko hornikuntzen eta zerbitzuen kasuetan; alde batetik, zerbitzuaren prestazio egokia, eta, bestetik, gestioaren beharrezko eraginkortasuna bermatzeko.

Esparru-hitzarmenak egiteko prozesua publizitatearekin negoziatutako esleipenerako ezarritakoa bezalakoa izango da. Kontratazio-organoak lehenik kontratazio-iragarkia argitaratuko du. Bigarrenik, kontratazioaren terminoak negoziatuko dira hautagai gisa edo gonbidatu gisa lehiatzen direnen artean. Egokitzat jotako kopurura arteko kontratistak onartuko dira, eta kontratazio-dokumentuetan jasoko dira datuok. Azkenik, kontratazio-organoak egokitzat jotako hautagaia edo hautagai homologatuak aukeratuko ditu, esleipen-irizpide objektiboen arabera eta lizitazio-dokumentuetan homologatzeko aurreikusitako kontratista kopuruaren arabera.

Esparru-hitzarmena sinatuta, zerbitzuak edo hornigaiak ematen dituztenak kontratatu ahal izango dira, aurretik deialdirik edo publizitaterik egin gabe.

11. KONTRATUAK

a) Kontratuen izaera juridikoa

Etxepare Euskal Institutuak egingo dituen kontratuak pribatuak dira, eta, antolatzeari eta esleitzeari dagokionez, arau zehatzik ez bada (KBA arauotan jasotakoan gisan), Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen arabekoak eta haren garapen-xedapenen arabekoak izango dira, edo, kasuan kasu, zuzenbide pribatuaren arauen arabekoak, subjektu edo entitate kontratugilearen izaerari dagokionaren arabera (SPKL, 20. artikulua).

b) Eragina eta iraungipena

Eraginari eta iraungipenari dagokionez, kontratuok zuzenbide pribatuaren mende egongo dira (SPKL, 20. artikulua).

c) Arbitratzea

Etxepare Euskal Institutuak egindako kontratuen eraginak eta iraungipena direla eta sor litezkeen ezberdintasunak arbitra daitezke, betiere Arbitratzeari buruzko abenduaren 23ko 60/2003 Legean xedatutakoarekin bat (SPKL, 320. artikulua).

d) Jurisdikzio eskuduna

Zuzenbide zibilaren ordena izango da eskuduna adostutako araudiaren mende ez dauden Etxepare Euskal Institutuak egindako kontratuen prestakuntzari eta esleipenari eragiten dioten auziak ezagutzeko eskuduna, kontratuaren helburuekin, betetzearekin eta iraungipenarekin sortutako auzietan ere (SPKL, 21. artikulua).

Aurrekoa hala izan arren, administrazioarekiko auzien jurisdikzioak izango du eskumena SPKL Legearen II. Eranskineko 17 eta 27 kategorietako zerbitzuen kontratuak (kontratuen balioa 193.000 eurokoa edo gehiagokoa denean) prestatzearekin eta esleitzearekin zerikusia duten auziak ezagutzeko.

e) Kontratuaren edukia

Baldintzen pleguan edo baldintzen eta betebeharren dokumentuan jasota egon ezean, Etxepare Euskal Institutuak egiten dituen adostutako araudiaren mende ez dauden kontratuek nahitaez jaso beharko dituzte honako hauek:

- Alderdien identifikazioa.
- Sinatzen sinatzeko ahalmena daukatela egiaztatzen duen agiria.
- Kontratuaren helburuaren definizioa.
- Kontratuari aplikatzen zaion araudiaren erreferentzia.
- Kontratua osatzen duten dokumentuen zenbakitzea.
- Prezio jakina edo huraxe zehazteko metodoa.
- Kontratuaren iraupena edo hura hasteko eta amaitzeko aintzatetsitako datak, bai eta luzapenarena edo luzapenena ere, aurreikusiko balira.
- Prestazioak jasotzeko, entregatzeko edo onartzeko baldintzak.
- Ordainketa-baldintzak.
- Kontratua bukatutzat emateko kasuak.
- Kontratugileari ezarritako konfidentzialtasun-betebeharraren luzapen objektiboa eta denborazkoa.

Eskaintzarako betebeharren eta baldintzen dokumentuak edo baldintzen pleguak eta hautatutako hornitzailearen edo banatzailearen eskaintza kontratuaren zati izango dira. Kontratuaren dokumentuak ezin izango ditu jaso pleguan edo betebeharren eta baldintzen dokumentuan zehazten ez ziren estipulazioak, kontratua esleitu zaionaren eskaintzak eragindakoak.

Aurreko bi ataletan xedatutakoa hala bada ere, 50.000 euro baino gutxiagoko balio zenbatetsidun kontratuen kasuetan (obrak), edo 18.000 euro baino gutxiagokoetan (zerbitzuak, horniketak eta beste), kontratua egin ahalko da, edo haren faltan, aurrekontua onartzea nahikotzat joko da.

Oro har, kontratua lizitzaileek esleipena jakinarazten dutenetik zenbatzen hasita, 15 egun balioduneko epean egingo da.

12. AZKEN GOGORAPENAK

Lehenengoa.- Indarrean sartzea

Kontratazioari buruzko KBA barne-arauok indarrean sartuko dira onartutako egun berean, eta data hori eta gero egindako kontratu guztietan aplikatuko dira.

Bigarrena.- Argitalpena

KBA arauok Etxepare Euskal Institutua kontratugilearen profilean argitaratuko dira, honako helbide honetan: www.etxepareinstitutua.net.